CPAP EGOKITZEKO POLISOMNOGRAFIA HAUR ETA NERABEETAN

ZERTAN DATZA PROBA?

Proba honek arnasketa eta garunaren eta giharren jarduera neurtzeko aukera ematen digu, loaren kalitatea eta kantitatea baloratzeko. Proba konplexua da eta, horren ondorioz, ospitalean egin behar da. **Probaren helburua** da gutxieneko presio egokiena lortzea bere semeak lo egin bitartean zurrungarik eta apnearik ez egiteko.

NOLA PRESTATU BEHAR DA HAURRA PROBARAKO?

Gurasoekin telefonoz hitz egingo da aurrez, loaren azterketa zein egunetan egin finkatzeko. Probaren egunean haurrak eguneroko bizimodua egin behar du. Etorri behar du Unitatera 21:00 aldera, afalduta. Era berean, haurrak botikaren bat hartzen badu, berekin ekarri beharko du unitatera eta erizainari jakinarazi beharko dio guk eman ahal izateko.

Komenigarria da burua garbituta etortzea. Haurrak etxetik kanpo gau bat lo egitera joan behar duenean bezala prestatu behar dute gurasoek dena (pijama, garbiketarako poltsatxoa, etab.). Egokitzea errazteko, gurasoek edo senideek (gehienez ere bi) baimena dute probaren hasieran egoteko. Baina behin proba hasitakoan pertsona bakar batek egon ahal izango da gau osoan haurrarekin.

Haurrak CPAP makina erabiltzen badu, garrantzitsua da ekartzea eta emandako argibideei jarraitzea.

NON ETA NOLA EGINGO DIDATE PROBA?

Gurasoek umearekin joan behar dute **LOAREN UNITATE-ra Santiago egoitzako B pabiloiko 2. solairura** aurretik adierazita dagoen orduan. Itxarongelan egon behar duzu artatua izan arte.

Haurrak banakako gela lasai eta isil batean egingo du lo. Buruan, toraxean, sabelaldean eta zangoetan kable batzuk jarriko dizkiogu aparailu batzuei konektatuta. Aparailu horiek loaren kantitatea eta kalitatea jasoko dute. Telebista kamera batzuek ziurtatuko dute haurra uneoro zainduta dagoela. Gau osoan erizain espezializatu batek gainbegiratu eta zainduko du haurra. Gurasoek aukera izango dute erizainarekin hitz egiteko edozein unetan.

Proba biharamunean, goizeko zazpiak aldean amaituko da. Kableak kendutakoan bainugela bat izango duzue garbitzeko. Agiriren bat behar izanez gero, proba amaitu ondoren ate nagusia dagoen harrera zerbitzuan eskatu behar duzu.

Probak ez du arriskurik, ez du minik sortzen eta deserosotasuna oso txikia da; etxetik kanpo kable batzuk jarrita lo egin beharrak sortzen duena besterik ez.

NON JASOKO DITUT PROBAREN EMAITZAK?

Loaren azterketa egitera zatozten gauean, kontsultarako hitzordua finkatzeko orri bat emango zaizue. Kontsulta horretan, mediku espezialista batek azalduko dizkizue probaren emaitzak eta, beharrezkoa balitz, haurrarentzako tratamendua azalduko dizue.

Gomendagarria da emaitzen kontsultara haurrarekin batera joatea.

Informazio gehiago nahi izanez gero, lasai galdetu artatzen zaituzten profesionalei.